

Balorezko proposamena: Gure gizarteak dituen hainbat arazoen atzean estresa eta urduritasuna dago. Bizimodua asko azeleratu da urte gutxien barne. Garapen ekonomikoa medio, gure bizi maila igo egin da nabarmen, beste behar batzuk sortu dira, kontsumoa, beste eskakizun batzuk ere, baina, era berean garapen ekonomiko horretan, hau da produkzioaren igoera kuantitatiboan eta kualitatiboan faktore izateak aldaketak ekarri izan ditu, produktibitatean eta espezializazioan hain zuzen ere. Guzti honek gehiago kontsumitu behar, gehiago produzitu behar, gehiago mugitu behar, presaka bizitzera ekarri gaitu eta denbora baliabide oso urrian bihurtu da, “ ez dut denbora” “ ez dit denbora ematen” ohiko hitzak eta espresioak dira gure garaian.

Gaur egin bizi maila honetan ere gauza gehiago erabiltzen ditugu erabat, mugikorra, tableta, ipada, kaskoak, kargadoreak, pen driveak, eramangarriak, txartelak, etab.. eta hauek askotan galtzen ditugu, araproduktuaren balorezko proposamena da batez ere larritasun eza, gauza bat galtzeko beldurra ez izatea. Oso produktu errentagarria da gizakientzako, gure eguneroko bizitzan balio handieko objektuak erabiltzen ditugulako, eta askotan, hauek, galdu egiten ditugulako. Ondorioz, gure produktuaren bitartez, lortuko genuke galdutako objektu horiek errestasunez aurkitzea. Gainera, oso era errazean lortu dezakegu. “Txipa” edozein aparatu elektroniko batean, aplikazio baten bitartez aurkitu dezakegulako (gps bat eta bluetooth-a txertatuta duena).